

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

43/2020 Foru Agindua, otsailaren 18koa, zeinaren bidez Arabako Hirigintza Intereseko Elkar-teen Erregistroan inskribatzen baita Gasteizko hiri antolamendurako plan orokorreko Ibaialde 11 sektoreko Konpentsazio Batzarrean egindako aldaketa, hau da, Zuzendaritza Kontseiluko kide bat aldatzea

Lehenengoa. Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorreko 2020ko urtarrilaren 27ko sarrera data duen idazki baten bidez, bidali du Gasteizko hiri antolamendurako plan orokorreko Ibaialde 11 sektoreko Konpentsazio Batzarreko idazkariak egindako ziurtagiria, Zuzendaritza Kontseiluko karguak berriro direla adierazten duena, Arabako Hirigintza Intereseko Elkar-teen Erregistroan inskriba dadin.

Bigarrena. Ibaialde 11 sektoreko Konpentsazio Batzarra Arabako Hirigintza Intereseko Elkar-teen Erregistroan inskribatu zen Hirigintza eta Ingurumen Saileko Foru Diputatuaren uztailaren 6ko 634/2004 Foru Aginduaren bidez.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Hirigintza Kudeatzeko Arautegia onetsi zuen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren 164. artikuluan xedatzen da ezen, konpentsazio batzordeetan gertatzen diren gorabeherak, hala nola zuzendaritza organorako izendapenen aldaketak, hirigintza entitate laguntzaileen erregistroari jakinaraziko zaizkiola, diharduen administrazioaren bitartez.

Gasteizko Udalak egindako jakinarazpenari eransten zaio 2019ko abenduaren 17an egindako ziurtagiria, zeinak jasotzen baitu Gasteizko hiri antolamendurako plan orokorreko Ibaialde 11 sektoreko Konpentsazio Batzarrean Batzar Orokorrak 2019ko azaroaren 28ko bilkuran hartutako erabakia. Bilkura horretako gai zerrendaren lehenengo puntua zen Zuzendaritza Kontseiluko kideak aldatzea, eta erabaki haren bidez jakinarazi da Iñaki Díez Unzuetak kargua utzi duela eta haren ordez Jorge Ozcáriz Salazar izendatu dela.

Bigarrena. Aplikagarria da Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkar-teen Erregistroa sortu eta arautzen duen Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 56/2011 Foru Dekretuan aurreikusitakoa.

Hirugarrena. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak txosten arrazoitua aurkeztu du, eta jakinarazitako aldaketa erregistroan inskribatzea proposatu du.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agintzea Arabako Hirigintza Intereseko Elkar-teen Erregistroan inskriba dadila Gasteizko hiri antolamendurako plan orokorreko Ibaialde 11 sektoreko Konpentsazio Batzarrean izandako aldaketa, hau da, Zuzendaritza Kontseiluko kide bat aldatzea: Iñaki Díez Unzuetak kargua utzi du eta haren ordez Jorge Ozcáriz Salazar izendatu da.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 18a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO